

# EUSKAL LITERATURA IZKUNTZA

Itz edo berba asko ditugu euskeraz, espainierako *lenguaje* esateko: izkera, izkuntza, berbaera, mintzaira ta onakoak. Guk, izan be, era berezi batez adierazten ditugu barruan daukaguzan burukizun edo pentsamentuak; eta onexeri deritxoguz *izkuntza*. Itzari momentu bitan oratu geinkeo: 1) gure gogoak, adimenak sortuz —*verbum mentis*— danean, eta 2) adimenak sorturiko pentsamentu kanpotiko ezaugarriaz, agoz —*terminus oralis*— adierazten dugunean. Izkuntza, beraz, ezaugarri dogu, bururakizunaren ezaugarri, bai barruko bai kanpotiko.

Esan-nai ta adiera asko ditu itz onek; baiña emen, maila bat jaitziaz, errialde batek alkarri gogorakizunak eta gauzak adierazteko erabilten dauan izkera berezi ta apertekoak dogu izkuntza. Guk onkaldunok, esate baterako, euskeraz dogu geure izkuntza, berbaera, ta izkera hokan berezi anko dirabilguz geure gauzetan alkarri aitzin emoteko. Beste abenda ta errik eurenak daukiez, espainiarrek espainiera, prantsezak prentzeta, italiarrak italeta ta abar.

*Lenengo izkuntza*.—Zelan sortua da lenengo izkuntza? Lenengo ortatik sortuak ete geroko beste guztiak? Ala banaka-banaka? Gizonok jakin-min gara, ta iru galdet ta itan onen mamoiñ be, marts-mordo antzera, lausk'itu gara geunke; baiña iru itan-nok, zurririk asko, eztabe egundu be erazko erantzunik izango; askapen bageko koropiloa, noski, Azken-izaldiotan ba-diardeie jakinok aztertu eta aztertu, jo ana ta jo ana; orainarte, alan be, eztabe gauza argirik atera. ta

eztogu aste inoz aterako daberrik be. Kondaira aurreko gauzak doguz onek, eta lorratzik bage ezin ezer egin; eiza-izkur zurrinok be, susmo-lorratz barik ezin erbitrik atera. Bardin jazoten yake gure izkeralari; baiña, susmorik ezjala-ta, dana bertan beru itxi? Ez olakorik, Eiztariaren antzera, naiz-ta alperriko sniorik asko egin, egoki yaku olako susmo ta lorratz-billa jardutea.

Lenengotan —Asterako liburu santuko dihoskunez—, etzan izkuntza bat hesterik, sendi, famili bai —Adan eta Eba'rena— hesterik etzan lez; geroko gizonok bikote onetik gatoz zurrin, zuri, ori ta gorri, lur-gaiteko guztiok. Gizonak, urte asko igaro ondoren, Babel'go Torreaz jasoten asi zurrinean, Jainkoak nastan egin eutsezan euren izkuntzak, eta gero, alkar ezin aiturik, izkuntza batekoak alkarregaz izan ta besteekandik alde egin ehen. Ordetik datoz, antza, izkuntzarik asko.

Danak ete? Eta lenengoa zein? Eza-dira munduko lenengo izkuntza euekera dala dihoenak, bai ta eizea zala dirauskuenak be; baiña ezin jakin gauza zurririk. Zela onetan, edozein baiespene, baiña jakitunik ben ta zintzoanera izan, oinarri bakoa izan da, ta surterantzean be orrela izango aurki.

*Zelan sortu zan lenengo ishera?* Asteran, alan be, izkuntza bat hesterik ezjala ta beste guztiak, g'itika, bakar oretatik sortuak dirala esan geinke. Lenengo orten atera adierazteko, naiko bide emanau dabez jakitunak: 1) *aberrata*, au da, gizadia piraketa etatuaz joan zan lez, izkuntzan

be lenengo barren-zauskada, intziria, itz bageko sen-oiua, aberenka; 2) *akaritzezko asmaketa*, au da, gizonak bere adimen-indarrez, alkar aitu ta gauzak adierazteko, asmau eban bere izkera; 3) *sortzezkoa*, au da, Jainkoak berak sortu eban gizonaren lenengo izkuntza; 4) *sen adierazkorra*, au da, gizakiak ba-dau olako jite edo berezko sena guzaz adierazteko, ta indar orrek eraginda sortu eban izkuntza; 5) *zurrara-zalekoak* edo *arima-zale* gizonak, au da, zurrinaren eragindan sortu eban izkuntza; 6) *landuz eguia*, au da, adimenez ornatutako gizakiak ba-dau indar bat gauzak ulertu ta adierazteko, bururakizunak sortu ta onek irauñi osotu ta besteai aitzera emoteko indarra, ta indar orrek eta bearkun orrek, biak aikarturik, osotua dogu izkuntza. Aitatu doguzan sei erizietatik anxe da, antza, erazko ta argarriena.

Dana dala, alan edo olan sortua izan zan, eta gaur asko bai asko dira munduko izkuntzak; bi millatik gora, jakitunak dihoenez. Balbi'k 860'raino aztertu ebazan, munduan onela zaibaiduk: Europa'n, 53 izkuntza; Afrika'n, 115; Asia'n, 153; Ozeania'n, 117, eta Ameriketan, 422. Izkegiak, barriz, baita zeatz jakitea oso zail izan, bost millatik gora pi dira. Euskerak berak, izkuntza bat bakarra izanda, bost izkegi daukaz gutxienez: Bizkaiera, gipuzkera, naparzoera, lapurdiera ta zuberocera. Ta giso outan beste izkuntzetan be.

A. Onaindia

# NORK BERE IRITZIA

Egia, dana dan bezela esatea da.

Gizakiok, ordea, guziok aberen adimendunak izan arren, bereizkerik pranko ba-dagu. Bereizki etetan sail bat sortzetikoak dira: adimen argia, zentzumen bizi ta abar. Beste sail bat ezlerak ematen dizkigunak: jakintza, lanbide bati atxiki zaiolari, jardunak ematen dion trehetasuna ta abar.

Bereizki anek ditugulako, bakoitzak bere erara ikusten ditugun diranak. Argatik esan oi dugu: «Zenbat buru, ainbat aburru».

Gizakiok, beraz, askotan, irizteak ematen ditugu Egiaren-gandik gertuegoko edo urrutiegeko leudeken irizteak.

Jakinduriz jantzia dagonarena izan oi da, noski, egiarengandik gertuena dagon iritzia; bere jakintzari dagozkionetaz ari daganen, jakitua. Ta, auek salda egiten dute iritzi ori: aldizkingi, egunkari, liburu ta izaldietan.

Ain bizkor eta jakintsu ez dira, nek ere sortu oi dituzte tajuzko irizteak. Ala uste dute beintzat, Anek ere euren iritzia zabaldu nai luteke. Baiña, ez die inork erosten eta, utsezan ere, pozik ematen dute, argitaratzeko inork aritu nai izan ezkeru. Aizkeneko puntakoa nauzte ni. Nere iritzia, dan baiño, sakonagotzat aritu ez dezuzuten esaten diznet.

Ba-dira beste asko, euren iritzia adiskide artean itoa uzten dutenak. Ezpaitue uste, aldizkingietan edo, bear bezela agertzeko gauza diranik. Auenak oi dira, geienik, antzeslari, idazle, ta zerbaiten ederra publikoari agertzen saiatu diranei joaten zaizkien txalo-gutunak. Txalogutun edo eskutitz apupakor anek, ordea, izan zanarena ez, baiña, izan bear zukeanaren oartzuna

eraman oi dute, geienetan; biotz itxuraren eraginez sortuak baitira.

Eskutitz anetakoa artu duanek, ba-du, gutxienaz, ilabeteko gozoa, au irakurriz. Dakarzkion txaloak inguru guziari jantki nai lizkieke, ta adiskide-eri erakutsi ta irakurri arteko onik ez du izaten. Amets bat ere ba-darbilki; Onelako bat egunkarietan agertzeko emango lioken ospel! Idatzit dionari baimena eskatu ta argitara eraziko luke, baiña... ez. Ba-daki, ez dala artarako eguia ta bere buruaren txalogle agertuko litzakela. Ez du argitara emango, eskutitzik «barrugarriena» ba-lirudio ere. Ez luke eman bear, beintzat. Izan ere, «bakoitzta, bere auziari buruz, nekezo oi da epalite egokia».

Bukatzeo, Tolosa'n, Pazko bigarrenegoz, «Lizardi» taldeak atera zigun «Malentxo Alarguna» antzerkiari ta antzesketari buruz, bi itz.

Gai egokia aukeratu du Labaien jaunak. Baiña, nere iritziz, naturalidade gutxi xamarrekia erabilia dago. Bukeraren du akatsik nabarmenena. Aizkeneko ogei bat minututan alper alperirikako jardunaldia daduka, Bannan bana edo biñaka, antzesno-ñteri antzerkiaren korapiloa nola askatu dan agertzea besterik ez du egiten. Ikusleentzat aspergari gertatzen da au; ikusia baitankaita nola askatu dan. Labaien'en trehetasunak au baiño bikañagorik sortu lezake.

«Lizardi» taldearen antzesketari buruz anxe soilki: Oso txepelt! Antzokira agertzerako, zer esan eta nola ibili ikasi-ta joan bear da. Tolosa'ko talde onek, eun aldiz ere, obeto egin lezake lana.

Lukas'ek

# UNAMUNO ALA LOROÑO, NOR OTE DA LENEGO?

O A R P E N A :

Guk erririk eduki gabe, "Unamuno ala Loroño..." idazlanaren zati bat argitaratu gabe gelditu zan. Au dala-ta "ZERUKO ARGIA" ren 15'garren zenbakian, Garagarriaren 9'an, agertu zan San Martin jaunaren artikuluari etzaino zenbait lekutan zuzen-iritzi.

Egoera arrigarri onetan, erriak, populua —Eroman ogia ta zirkoa eskatzen zuan populua bezela—, futbolistak eta ziklistak ginkoki biurtu ditu, ta aur, gazteri eta zenbait gizon eldu eta gandulen buruetan, Einstein, Teilhard de Chardin, Sédov, Freud eta orrelako gizonen ordez, Di Stefano, Kubala, Bahamontes, Anqueti eta orrelakoak dabilzate aoz-ao. Bestelako gizon ospetsurik munduan ez baliz bezela.

Gitu orrek ekarri du filosofo aundi bati oroipeña ukatzea eta oraindik bizi dan baserriari bati eskeindu naia. Baserriarra dala-ko egingo balieko monumentu ori, gaitzardi —ñor gogoratzen ez bada ere, eutrak, besteak ogia jeteke garia eraitzen dituenak izanik, nekazari bezela, orrenbeste ta geiago merezi dute—, baiña okorrerna da, ez diela egiten bere lan nekagarriaren oroitzapenez.

jolas batean txapeldun izatearren baizik.

Gauzak nola biurtzen diran. Orrela, Di Stefano-k irratiz kantatu bear zuan batean, ezagun batek, arriturik esan zidan: «Futbolista bikain au, almen aundien jabe dek. Ez nian uste orten kantari ona zaniko. Orduan non: «Bai, ala dek, ta gafierra Kubala izango omen dek, pianoa joaz, laguntzalle». Arentzat Di Stefano bat bakarrik zan munduan.

Arestian esan dedan bezela, zibilizatuz sartuko gera zentzunean. Joanes XXIII-garrenaren azkenengo enziklikak asko lagunduko digu. Unamuno-ren ideak oraindik etsai asko dituzte, pentsamen desberdiñak errespetatzen ez genekielako. Jokabide ori zearo bukatzeko bidean dago. Asko dira oraindik konprenitzen ez dutenak, baiña munduko pakeak eskatzen duan jokabidea da. Len-

go batean, komentu batean buru dagoan monja batek esan omen zion nere adiskide bati: «Oraingo Aita Santu au zerbait erota ez ote dago gero?». Baiña, Joanes XXIII-garrenak ondotoko daki zertan diarduan. Bea, Alemania-ko kardenalak ederki esan zuan bezela: «Egiarentzako benetakoa ta zentzunezko maitasunak beartzen gaitu gure jakintzaren mugak gogoan izatera eta baita besteak ikusten duten agiaren alderdi ona ikustera. guretzako benetakoa egiztat artu deguna ukatzeke.»

Aikarrentzat eramangarriagoak izan bear gera, ta Unamuno baten jakinturia gure gañetik dagoala sinistu. Baiña, uste det, ortarako, Iturrizak bere liburuaren itazurrean dion bezela: «Unamunoren akarrak suntsituko ba'ditugu, guk aberastasin gutxiago bear, eta... zentzun geiago!»

J. San Martin

# «Seaska'n»

«SEASKA'N»dituzte, jantzi egokiak zure seme edo alabarentzako: azpiko ta gañeko; bear dezun guztiak antxe. Egiñak ala neurritz nai dezun bezela.

Emakumentzat ere badituzte bertan blusak, teregalzko gonak, mantillak, buruzapiak eta abar.

Alameda, 24. S. Jerónimo iskiñan

Urrutizkiña 1-18-54

DONOSTIA'N

ZERUKO ARGIA FRANQUEO CONCERTADO N.º 37-21

D. JUAN ZULAICA

Emplogado de Aranzazu

HAITE